

GUGGENHEIM BILBAO

Hezkuntza
eta



HEZKUNTZA PROGRAMAK 2021/22 IKASTURTEA

Artearen eta bere balioen bidez
ikuspegi berriak inspiratuz eta irekiz

Guggenheim Bilbao Museoak hezkuntzarekin duen konpromisoa kultura-proiektu artistiko eta pedagogiko ezberdinen garapenean oinarritzen da. Proiektu horien helburua beren edukiak ikuslego ezberdinetara zabaltzea da, horrela artearen eta arteak ordezkatzeko dituen balioen ezagutza eta hedapena sustatuz.

Guggenheim Bilbao Museoaren erakusketa-egitarau anitzari esker, ikasleek zeharkako curriculum-gaien inguruan ikasiko dute eta, aldi berean,

artearen historiaren testuinguruko mugimendu artistiko, teknika, egile eta joera ezberdinak bereganatuko dituzte.

Horrez gain, Museoaren Bilduma bertatik bertara ikusteko aukerak nazioartean erreferentziazkoak eta esanguratsuak diren artelanak ezagutzeko eta deskubritzeko bide emango die, eta artelan horiek tokiko errealitatearen eta errealitate globalaren arteko bidegurutzeko konektatuko dituzte ikasleak.

Gure xedea artearen eta bere balioen bidez ikuspegi berriak inspiratzea eta irekitzea da eta, horretarako, egitarau dinamikoa prestatu dugu eskolentzat. Egitarau horren eskutik, ikastetxeok aurrez aurre edo online esku hartzeko aukera izango duzue, ikasturtean behin edo behin baino gehiagotan, lau hizkuntzatan eskuragarri eta ikasmaita guztientzat egokituta dagoen eskaintzaz baliatuz, eskolatik kanpoko jardueri berrekin eta arteaz berme guztiekin eta zuen erritmora gozatzeko aukera izan dezazuen.

Halaber, ikasturte honetan Hezitzaileen Community abiatuko dugu! Irakasleak jomuga dituen komunitate horretan Museoaren eskola-bisitaldien berri jasotzeko eta irakasleei zuzenduriko eduki berezietan baliatzeko aukera izango duzue.

Egizu bat Hezitzaileen Community-arekin, eta parte hartu gure programetan.

Eman izena hemen*

* Ezinbestekoa da Hezitzaileen Community-ko kide izatea programetan parte hartzeko



NOLA HURBIL ZAITEZKE MUSEORA ZURE IKASLEEKIN?



ONLINE IKASI!

Zure ikasgelatik, mugitu ere egin gabe:

- DEMO PRAKTIKOAK
- BISITALDI BIRTUALAK
- MATERIAL DIDAKTIKOAK



IKASI AURREZ AURRE

Museora etorrira, berme guztiekin, honako hauen bidez:

- IKASTEENTZAKO BISITALDIAK
- HEZITZAILEENTZAT: ORIENTAZIO-SAIOAK,
DOAKO SARBIDEA

ONLINE IKASI!

Zure ikasgelatik, mugitu ere egin gabe:

www.guggenheim-bilbao.eus/eu/ikasi/irakasmundua

DEMO PRAKTIKOAK:

Proposamen sortzaileak zuzenean zure ikasleentzako aukeratzen duzun uneko erakusketan oinarrituta. Lehen Hezkuntza, DBH eta Batxilergo. Euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez eta frantsesez dago eskuragarri.

Ordutegia: 9:30, 10:45 eta 12:30, asteartetik ostiralera. Iraupena: 50 minutu.

Erreserbatu hitzordua eta konektatu.

BISITALDI BIRTUALAK:

Museoko profesionalekin hartu-emanen aritu ahalko duzue, artelan ikonikoak eta normalean bisitariak eskura izaten ez dituzten espazioak ezagutzeko bisitaldiak.

Hiruhileko bakoitzeko bat aldeaz aurretik iragartzen da webgunean.

Lehen eta Bigarren Hezkuntzarako eta Batxilergorako erabilgarri. Gaztelaniaz eta ingelesez. Erreserbatu hitzordua eta konektatu.

MATERIAL DIDAKTIKOAK:

Museoko erakusketei eta Bildumari buruzko baliabide-zentro zabala eta gida didaktikoak. Honakoak hartzen dituzte barne: argazkiak, bideoak eta sormen-proposamenak; erakusketak bisitatzeko gomendatutako ibilbideak; eta inprimatzeko Snack Mapak Haur Hezkuntzarako.



IKASI AURREZ AURRE

Museora etorrita, berme guztiekin, honako hauen bidez:

www.guggenheim-bilbao.eus/eu/ikasi/irakasmundua

IKASTEENTZAKO BISITALDIAK

Parte-hartzea bultzatzeko ibilbideak, Museoko hezitzaileek dinamizatuak. Haur eta Lehen Hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko, Oinarrizko eta Erdi-mailako Lanbide Heziketako eta HHEko ikasle-taldeentzat. Euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez eta frantsesez daude eskuragarri. Prezioa: 40 € taldeko. Taldeak: 25 ikasle kopurua guztira, talde egonkor edo "burbuila" bereko ikasle. Orduetgia: 10:45 eta 12:30, asteartetik ostiralera. Iraupena: Iraupena: Ordu 1 eta 30 min.

HEZITZAILEENTZAT

ORIENTAZIO-SAIOAK:

Erakusketak Museoko hezkuntza-taldearekin batera prestatzeko. Erakusketara bisitaldi bat barne.

Alice Neel. Pertsonak lehenbizi: 2021eko urriak 19 eta 21.

Emakumeak abstrakziogile: 2021eko azaroak 2 eta 4.

Fauvismotik surrealismora: 2022ko otsailaren 22 eta 24.

Jean Dubuffet: 2022ko martxoaren 8 eta 10.

Orduetgia: 17:00ak; asteartean euskaraz, ostegunean gaztelera.

Iraupena: Ordu 1 eta 30 min.

DOAKO SARBIDEA:

Erakusketa berriak libreki bisitatzeko eta ikusteko.

Alice Neel. Pertsonak lehenbizi: 2021eko urriak 26 eta 28.

Emakumeak abstrakziogile: 2021eko azaroak 9 eta 11.

Fauvismotik surrealismora: 2022ko martxoaren 1 eta 3.

Jean Dubuffet: 2022ko martxoaren 15 eta 17.

Orduetgia: 16:00etatik 19:00etara



Erreserbatu zure hitzordua eta etorri, zure zain gaude!

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK
IKASTEENTZAKO BISITALDIAK:

T. 94 435 90 90
Asteleheneetik ostiralera 9:00etatik 14:00etara

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK
HEZITZAILEENTZAKO PROGRAMAK:

T. 94 435 90 67
Asteleheneetik ostiralera 9:00etatik 14:00etara